

- **Banaketa eta komunikazio kanalak**

Gure xaboa bezeroei helarazteko online kanala erabiliko dugu batik bat. Komunikazio kanal bezala sare sozialak erabiliko ditugu gaur egun asko erabiltzen baitira, esate baterako, Instagram-a, Facebook-a, Pinterest etab. Web orri bat egingo dugu baita, bertan gure produktuen zerrenda eta xaboi bakoitzaren onurak azalduko ditugu eta honen bitartez gure produktuak erosteko aukera eskaintzen diegu gure bezeroei.

Aurrerago blog bat egitea aurreikusten dugu, bertan produktu natural eta ekologikoei buruz informazioa eskainiz.

Gure xaboiak belar-denda edo denda naturaletan saltzea pentsatu dugu, bertan gure produktuak ezagutarazteko aukera gehiago izango dugulakoan. Hainbat merkatuetara joateko asmoa dugu, bertan gure produktuak nola egiten ditugun erakusteko asmoz.

Xaboa gure bezeroei eramateko kotxe elektrikoa erabiliko dugu ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko. Gure bezeroa 3 kilometro baino gutxiagora badago, bizikleta erabiliko dugu.